

Zuberoa Aro Modernoan

HIAZINTO FERNANDORENA

(Lazkao, 1930)

Gordailu izeneko Ikastolako Irakasleen Elkartean hasi zen itzulpen lanak egiten, beti talde-lanean *Escola Catalanarekin* harremanetan. Ordukoak dira besteak beste *Ikastola Hiztegia*, *Izendegia*, *Psikomotrizitate*a eta abar. Ondoren Martuteneko Itzultzaile Eskolan ikasketak egin eta Hernaniko Udaletxean hasi zen lanean itzultzaile eta euskara arduradun bezala, eta lan horretan aritu zen erretiroa hartu arte. Horrezaz gain, itzultzaile talde eta enpresentzat ere hainbat itzulpen lan egin ditu, eta argitalpenen alorrean Etor-Sendoa, Erein eta Gaiak argitalletxeentzat geografia, historia, erlijioak eta beste zenbait giza alorri buruzko testuak ere itzuli ditu. *Zuberoako historia* liburuko atal bat aukeratu dugu liburu honetarako.

La Soule à l'époque moderne

CHRISTIAN DESPLAT

La saison des révoltes: le curé Matalas

Entre la terrible épreuve qu'avaient été les guerres de religion et la Révolution de 1789, les Souletins coulèrent des jours paisibles. Un épisode de leur histoire a toutefois retenu l'attention : la révolte du curé Matalas au milieu du XVIIème siècle. Cet événement, infiniment moins sanglant que les affrontements de la seconde moitié du XVIème siècle, a donné matière à des interprétations divergentes. Certains n'y ont vu qu'une manifestation anarchique de quelques trublions de l'ordre politique et social ; d'autres considèrent Matalas comme un héros précurseur de la cause de l'indépendance des Basques, un pur nationaliste écrasé par la centralisation française mise en place par Richelieu et portée à son pinacle par Louis XIV. Entre ces jugements qu'inspirent le mépris de classe ou l'anachronisme, il y a sans doute une place pour une lecture apaisée qui prenne en compte le contexte général et local dans lequel se déroule cette révolte, ignorée de la grande histoire.

Matalas et les siens ne constituent pas une exception basque en Aquitaine ou en France au XVIIème siècle, c'est tout le contraire. Ils furent les frères d'innombrables paysans révoltés dans la France et le Sud-Ouest en particulier, mais aussi des Catalans de 1640, des Napolitains de 1648, des Suisses de 1653. Le XVIIème siècle et surtout sa première moitié furent en Europe la " saison " des grands soulèvements paysans. On n'en finirait pas de dénombrer les Pitauds de Guyenne (1548), les Nu pieds de Normandie (1639), les Bonnets rouges de Bretagne (1675) et tous les Croquants du Sud-Ouest (1594-1624-1636-1637-1642-1643). La révolte de Matalas s'achevait à peine qu'un petit gentilhomme de Chalosse, Bernard d'Audejos, soulevait pour près de dix

Zuberoa Aro Modernoan *

HIAZINTO FERNANDORENA

Matxinada garaiak: Matalas apaiza

Erljio-gerrak eta 1789ko Iraultzaren artean gertaturiko froga latza-
ren ondotik, egun baketsuak itzuli ziren Zuberotarrengana. Alabaina
gertaera bat izan zen haien arreta bereganatu zuena: Matalas apaiza-
ren matxinada XVII. mende erdialdera. Gertaera hau, ordea, nahiz eta
XVI. mendekoaren bigarren erdialdekoekin konparatuz, gutxiagorik ere,
hain odoltsua ez den, inon diren interpretazio desberdinenak ekarri
dituen arazoa gertatu da. Batzuek politika eta gizarte mailako asaldura
zenbaiten azalpen anarkikotzat daukate; beste batzuek, aldiz, euskal
independentziaren kausako heroi aitzindaritzat, Richelieuk martxan
ipini eta Luis XIV. erregeak gailurrera eraman zuen frantses zentraliza-
zioak suntsitu zuen abertzale jatortzat. Klase-mesprezuari alde batetik
eta anakronismoari bestetik bide ematen dioten irizpen hauen artean,
bada beste bat irakurketa sosegatuago batek dakarrena eta matxinada
hau burutzen den testuinguru lokal eta orokor batean hartzen duena,
historia nagusiak aintzat ez badauka ere.

Matalas eta bereak ez dira euskal salbuespen bat XVII. mendeko
Akitania edo Frantziaren barne, aitzitik baizik. Frantziaren barne, garai
hartan, matxinatu ziren kontaezinezko laborari haien anaia ziren, Fran-
tzian esan dut baina Hego-Mendebaldean bereziki, eta Katalanak
1640an, Napoliarrek 1648an, Suitzarrak 1653an. XVII. mendea eta ba-
tik bat beronen lehen erdialdea Europan laborarien altxamenduen “aroa”
izan zen. Aipagarri ditugu, esaterako, Guiena aldeko Gupidagarriak
(1548), Normandiako Oinutsak (1639), Bretaniako Txapelgorriak eta
Hego-Mendebaldeko Lander guztiak (1594-1624-1637-1642-1643). Ma-
talasen matxinada bukatu berria zen, Bernard d’Audejos izeneko Cha-
losseko kapare batek ehunka landetar altxarazi zituenean, hamar bat

ans quelques centaines de Landais. Certains de ces mouvements eurent une ampleur considérable, comme en Normandie et en Bretagne. A cet égard on comprend, même si on ne l'accepte pas, que la grande histoire ait passé sous silence celui de la Soule ; il survint tardivement dans une lointaine province et ne menaça jamais sérieusement le pouvoir royal qui laissa à des autorités locales le soin de régler l'affaire. Par ailleurs, comme tous ses homologues, il n'avait aucun programme et n'envisagea pas de trouver des alliés hors de sa province d'origine. A l'échelle européenne, il s'inscrit dans un phénomène de longue durée qui échappe aux hypothèses réductrices du XIX^{ème} siècle : lutte des classes, insurrection nationaliste. Face à une crise de croissance de l'Etat, en particulier à ses exigences fiscales, la communauté rurale chercha pendant près de trois siècles à préserver son identité et ses solidarités.

Contemporaine d'un grand cycle rural européen, la révolte de Matlas ne fut pas même en Soule un événement isolé. Comme partout ailleurs il existait un climat de tension et une sensibilité antifiscales toujours prêts à se manifester. Un incident survenu à Gotein le 9 novembre 1631 en donne la mesure et montre le rôle des curés lorsqu'il s'agissait de mobiliser la communauté contre les agents du fisc, laïc ou d'Eglise. Arnaud d'Arbide, curé de Gotein, vicaire général d'Oloron pour la Soule, racontait en ces termes à son frère, curé de Cheraute, la réception que sa paroisse avait réservé à un huissier, commis de Daguesseau, qui relevait la recette des dîmes.

“Ça mon frère prenez les armes et faits assembler les paroissiens de mon village. Il doit venir des commissaires pour les décimes. Il s'en fault deffendre. Estant à l'entrée du village de Goutein, seroit sorti d'une maison sur la main droicte entrant dans le village, quantité d'hommes et en grand nombre ayant arquebuses à rouet le cocq rabattu, d'autres des arquebuses à fusy aussy le cocq levé, et plusieurs ayant des espieulx, bastons à deux boutz, fourches de fer, d'autres tenans quantité de pierres dans leurs chappeaulx, conduictz et commandés par le recteur dudit Cheraute, frère dudit vicaire général, vestu de noir et d'un scapullé en forme de mandille passemantée de drap bleu, avec le vicaire dudit Goutein et Pierre de Grison, père et fils, taverniers audit Goutin, lesquels ainsy assistés nous voyant, nous auroient dict en nous présentant Lesd arquebuses et nous couchant en joue : “Mordieu, demeurés là, pestifiérés, qui venez du lieu où est la peste. par la mordieu, si vous passez plus oultre, l'on vous tuera. Et sur ce que le cheval dud. Passart ayant un peu avancé, Led. curé seroit venu à lieu plein de furie, disant ces mots : Par la mordieu, sy tu brenle, je te tue.”

urtetan zehar. Mugimendu hauetariko batzuek aski hedadura handia izan zuten, Normandiakoak eta Britainiakoak adibidez. Alderdi honetatik, baita, onartzen ez bada ere, ulergarria da historia nagusiak isilpean pasatzea Zuberoako kasua; berantiarra izan zen eta urruneko probintzia galdu bateko gertaera, nolahi ere erregearen boterea arriskuan ipintzen ez zuena eta lekuko agintariek konpontzeko arazoa. Bestalde, bere kide guztiek bezala, ez zuen ezein programarik eta ez probintziaz kanpo aliatuak bilatzeko asmorik ere. Europa mailan, XIX. mendeko hipotesi murrizetara biltzen ez diren luzapen handiko fenomenoak izan ziren: klase-borroka, altxamendu nazionalista. Estatuak hazten zihonako krisialdiari buruzkoa, izan baitzen, eta bereziki haren zerga-gehitzeari buruzkoa, komunitate landatarra biziki ahalegindu zen kasik hiru mendetan zehar bere nortasuna eta solidaritateak gordetzen.

Europako ziklo nagusi baten garaikide, Matalasen altxamendua ez zen Zuberoan gertaera isolatua izan. Beste nonahi bezalaxe, tirabirarik aski bazegoen bazterretan eta zergaren kontrako sentiberatasuna bizia zenez, horrek eragin zion jendeari altxatzera. Gotañen izandako jazoera batek, 1631ko azaroaren 9an hain zuzen, erakusten du neurria, eta berdin, apaizek jokatu zuten eginkizuna herria mobilizatu zedin zergabiltzaileen kontra, laikoak ala elizakoak izan. Arnaud d'Arbidek, Gotañen apaiz, Zuberoatik Olorueko bikario nagusi, gisa honetan kontatzen dio Sohütako apaiz zen anaiari Daguessearen agenteari bere parrokiari egin behar zaion harrera aipatuz. Hamarrenak biltzera zetorren hau.

“Armak hartuta, ene herriko elizkideak bildu ziren. Komisari batzuk detxemak biltzera etortzekotan ziren. Kontra egin behar diegu. Herriaren sarreran, gizon-multzo handia, mota desberdinetako alkabuzak, makilak, burdinezko sardeak eta harri ugari kapeletan gorderik zituztela, Cheraute deritzon erretorea eta bonen anaia den bikarioa eta Gotañen tabernariak buru zituztela, gu ikustean balaxe mehatxatu ziguten: Ez mugitu, izurridun balakoak, izurritea dagoen lekutik zatozte eta aurrerago egiten baduzue, bil egingo zaituztegu.”

Testuinguru honetaz oharturik, ez zaigu batere zaila gertatzen Matalasen matxinada ulertzea, izan ere gobernuak Lege Zaharrari buruz eginiko proiektuen erasoak baitzegoen tartean eta zergaren aldetik kargagarri zirenak. Zuberotar legeen arabera lurrak Zuberoan “frankizia” zuen ezaugarri nabarmenena eta berebat tesi amankomuna zen hau Pirinioetako alderdi guztietan: alodioarena. Irizpide hau jarraituz, nagusi-jaun bat ez zuten lurrak baziren; frantses erregearen eskubideak,

C'est en se souvenant de ce contexte que l'on peut espérer comprendre la révolte de Matalas qui naquit de projets gouvernementaux attentatoires à la Coutume et lourds de conséquences fiscales. Le droit coutumier souletin insistait sur la "franchise" de la terre souletine et défendait une thèse commune dans les Pyrénées : celle de l'alleu. Suivant cette opinion, il existait des terres sans seigneur ; or le droit monarchique français proclamait au contraire : "nulle terre sans seigneur". Jusqu'au milieu du XVII^{ème} siècle la monarchie avait respecté la Coutume, mais de la conjonction de ses besoins financiers et de mutations sociales locales naquit une nouvelle politique. Les juristes royaux soutinrent que les terres communes, vitales pour l'économie traditionnelle, faisaient partie du domaine royal ; quelques années après la révolte souletine, Louis XIV devait mettre un point final au débat en se déclarant seul alleutier du royaume. Les prétentions du roi n'étaient toutefois pas nouvelles, mais elles étaient devenues dangereuses car il existait sur place des catégories sociales séduites elles aussi par l'appropriation et la mise en valeur individuelle des sols.

La première phase de ce processus qui devait entraîner le soulèvement fut l'édit de mars 1639 qui mettait en vente le domaine royal, c'est à dire les terres communes. A la suite d'une vente aux enchères, le comte de Trois-Villes les acquit en 1640 pour la somme de 70 000 livres. Les Etats de Soule s'étaient endettés vainement pour racheter le domaine et éviter sa privatisation ; ces dettes alourdirent la charge fiscale de la province. Une volte face du gouvernement vint encore compliquer la situation ; Richelieu semble avoir pris ombrage des ambitions politiques du comte de Trois-Villes qui prétendait exercer tous les droits régaliens et qui convoitait peut-être le titre de vicomte de Soule. Il est probable que le cardinal-duc qui s'efforçait d'abattre la grande noblesse et qui devait faire face à la révolte des Nu pieds de Normandie ait souhaité apaiser les inquiétudes des Souletins ; la vente des communaux fut donc annulée, mais sous réserve que les Etats les rachètent...

Une fois de plus l'assemblée territoriale dut lourdement s'endetter ; les contribuables durent par ailleurs supporter d'onéreux frais de procédure et la reconstruction du château de Mauléon. La Coutume menacée, la province endettée, il suffit que la logique fiscale aille jusqu'à son terme, la contrainte et la répression, pour que la révolte éclate. Lorsque le capitaine-châtelain de Mauléon, Henri de Gramont, entreprit de procéder à des recouvrements forcés, le curé de Moncayolle, Bernard de Goyheneche, dit Matalas, suivit à la lettre l'exemple de Gotein.

ordea, besterik aldarrikatzen zuen: “ez jaunik gabeko lurrik”. XVII. mende erdira arte monarkiak errespetatu zuen Lege Zaharra, baina finantza-arazoak alde batetik eta lekuko gizarte aldaketak bestetik, egoera berria sortu zen. Erregearen legegizonek zera zioten, herri-lurrak, hain ezinbesteko zirenak ekonomia tradizionalan, erregearen nagusigoari buruzko osagai zirela; zuberotarren altxamendua baino urte batzuek beranduago, Luis XIV.ak amaitu zuen eztabaida, aitortuz, erregea zela erresumako nagusi bakarra. Erregearen pretentsioa ez zen gauza berria, baina orain benetan arriskugarri gertatu zen edonorentzat, zeren eta gizarte-maila desberdinetan ezaguna baitzen jadanik lurraren jabetza eta norbanako lurzorua balioztatpena.

Altxamendua ekarriko zuen prozesuaren lehen fasea zera izan zen, 1639ko martxoan aldarrikatu ediktua izan zen erregearen nagusiagoa salmentara emanaz, hau da, herri-lurrak salgai ipiniz. Enkantean eman ziren aldi batean, Iruriko kondeak 1640an 70 000 liberako dirutzan eskuratu zituen. Zuberoako Estatupei, zorrez beterik zirenez, alferrik izan zitzairen lurrak berreskuratu nahian ibiltzea eta pribatizazioa ekiditea; zor hauek, bestalde, karga bilakatu ziren probintziarentzat. Are konplikatuagoa egin zuen egoera Gobernuaren beste jokabide batek; iduri du Richelieu izan zela Iruriko kondearen handinahi politikoa bere gerizpean hartu zituena. Kondeak erret eskubide ororen erabilera zuen helburu eta Zuberoako bizkonde tituluaren bila ibili zen susmoak daude. Uste da gure duke-kardinala noblezia handia erazteko ahaleginean ibili zela eta beharrezko izan zuenez Normandiako Oinutsen altxamendua moteltzea, badaiteke Zuberotarren kezka baretzen ere ahalegindu zela; herri-lurren salmenta burutzeko agindua ezabatua izan zen, baina Estatuiek erosteko baldintzapean...

Berriro ere lurraldeko batzarrak zor handitan sartu beharra izan zuen; zerga-emaileak, bestalde, jokabide horrekin karga berriak jasan beharrean gertatu ziren eta gainera Mauleko gaztelua berreraikitzekeo gastuak etorri zitzaizkien gainera. Lege Zaharra mehatxupean, probintzia zorretan sarturik, aski izan zen zergak kobratzeko bidean aurrera jotzea, matxinadara eraman zituen bortxa eta errepresioa sortzeko. Mauleko kapitain-gaztelau zen Henri de Gramontek kobrantzak bortxaz egiteko jokabidea hartu zuenean, Mithikileko apaiza zen Bernard de Goyheneche, Matalas zeritzona, altxatu zen Gotañeko exenplua jarraiki.

Uda sasoa zen, 1661. urtea, Matalas historian sartu zenean, laborari-multzo baten buruzagi, inolako programarik gabe baina zerga-biltzaileak harrapatzera jo zutelarik. Erret zergaren kontrako Zuberotarren etsaigoak iduri du zenbait alderditan Elizaren zergak ere ukitu zituela,

Au début de l'été 1661, Matalas entra dans l'histoire suivi de paysans sans autre programme que celui de chasser les receveurs du fisc. De la fiscalité du roi, l'hostilité des Souletins paraît s'être étendue à certains aspects de celle de l'Eglise mais sans mettre en cause la dîme et l'autorité épiscopale. A l'égard du roi, l'attitude de Matalas semble avoir été celle de tous les révoltés du temps : lui aussi aurait pu crier : "A bas la gabelle, vive le roi !" Comme tous les autres sujets du roi, les Souletins entretenaient avec leur souverain une relation de dépendance filiale et ils attendaient leur salut de sa justice. La première décision de Matalas fut donc d'envoyer un représentant à Paris, un certain Salha, pour obtenir réparation des privilèges violés. A ce stade du soulèvement, quelques concessions eussent sans doute été suffisantes pour que le calme revint sans effusion de sang. Les insurgés s'étaient jusque là contents de simulacres de violence ; ils avaient entrepris le siège fictif de Mauléon, processionnant autour de la ville en agitant des lauriers. On retiendra cette aptitude des ruraux à canaliser leur violence ; ce comportement évoque en particulier les lies et passeries qui résolvaient les contentieux entre vallées. Faute de moyens mais surtout parce qu'il estima que la menace était minime, le gouvernement central n'intervint pas directement dans le conflit et ce furent des forces locales qui tranchèrent. L'évêque, Arnaud-François de Maytie, chercha à plusieurs reprises à s'interposer et les insurgés paraissent avoir eu confiance en lui. La révolte qui eût pu être apaisée fut relancée par la noblesse locale qui sollicita une intervention royale et par l'intransigeance du Parlement de Bordeaux qui fut le véritable artisan de la répression.

En juillet 1661 cette cour de justice envoya un petit corps d'armée sous le commandement de Bernard d'Arche. Dès lors, les choses allèrent très vite, en quelques semaines le sort de Matalas et des siens fut scellé ; entre août et septembre les insurgés tinrent plus ou moins le pays à l'exception de Mauléon. Comme les autres Croquants, les Souletins n'avaient aucun programme politique ; avec leurs pauvres armes et leur courage ils défendaient le contribuable et le consommateur. Matalas leva quelques taxes, tenta de contrôler les marchés ; avec les agents du fisc, les "accapareurs" et autres affameurs furent l'obsession des révoltés. On ne saura sans doute jamais quels furent les effectifs de l'armée paysanne ; les chiffres évoqués, entre six mille et sept mille combattants sont énormes pour les armées du temps et pour la population souletine. Il est probable que les adversaires de Matalas grossirent le danger pour faire valoir leur victoire. Tant qu'il refusa la bataille rangée, Matalas échappa au désastre ; mais à l'automne, les troupes royales s'étaient renforcées, quatre cents cavaliers, et étaient

baina ez zituen zalantzan ipini hamarrenak eta apezpikuaren agintea. Erregeari zegokionez, iduri du Matalasen jokabidea garaiko altxamenduen jokabide berbera izan zela; oihuak ere bai: Behera zergak, gora erregea!” Gainerako beste menpeko guztiek bezalaxe, Zuberotarrek ere itzal handia zioten erregeari, aita bezala zeukaten eta osasungarri zitzaien haren zuzentasuna. Matalasen lehen erabakia ordezkari bat Parisera bidaltzea izan zen, Salha izeneko bat hain zuzen, bortxaturik izan ziren pribilegio zenbait zuzentzeko eskatzera. Altxamenduaren fase honetan, amoremate gutxi batzuk boterearen partetik nahikotzat jo izango zuketan matxinatuek, odol isurtzerik gabe bakea itzul zedin. Ordu-ra arte, altxatuek biolentzia plantak besterik ez zuten egin izan; fikzioz Mauleko egoitza hartzeko ahaleginetan ihardun zuten, ereinotzak astinduz hirian barna ibili ziren. Biolentzia ez bideratzeko jokabidea erakutsi zuten laborariok; portaera honek zera adierazten digu bereziki, hauxe izaten dela haran desberdinen arteko liskarrak konpontzeko garaian hartu ohi zuten bidea. Mediorik ere ez baina batik bat mehatxua ere ahal zenik eta gutxiena izatearen bila zihoazelako, eta gobernu zentralak zuzenki parte hartzeke, gatazka lekuko indarren artean konpontzeko bidea bilatzearen. Apezpikuak, Arnaud-François de Maytiek, ahalegin bat baino gehiago egin zuen bitartekari egiteko eta iduri zuen altxatuek bazutela beregan konfidantzarik.

Altxamendua, baretu zitekeen gauza izanik, lekuko nobleziarengatik aurrera egin zuen, handikiok eskatu baitzuen erret indarren partaide-tza eta, azkenik, Bordeleko Parlamentuaren etsigaiztasunagatik, hauxe izan baitzen errepresioaren benetako artisaua.

Justizi auzitegi honek 1661eko uztailean armada koskor bat bidali zuen, Bernard d’Arche buruzagi zelarik. Harez gero, gauzek bizkor jo zuten aurrera, aste asko baino lehen garbitu zen Matalas eta bere taldearen auzia; abuztu-irailtan harturik zeukaten altxatuek herrialde guztia salbu Maule hiria. Beste lekuetako Landerrok bezalaxe Zuberotarrek ere ez zuten programa politikorik; ahal zuten arma eskas eta kuraia bildurik zergapekoak eta kontsumitzaileak defendatzera jo zuten. Diru apur bat bildu ahal izan zuen eta ahalegindu zen merkatuak kontrolatzen ere Matalas. Zerga-biltzaileak, “pilatzaileak” eta beste “gose eragileak” ziren altxatuen gogo-berotzaile. Inoiz ez da jakin ahal izango zeintzuk ziren benetan laborari armadaren partaide; aipatu ohi diren sei eta zazpi mila arteko gudari-multzoa zinez izugarria da garai hartako armada batentzat eta zuberotar populazioarentzat. Baliteke kontrarioek kopurua gehitzea, gero, beren garaipenari balioa eranstearren. Matalas, buruz-buru gudua egitea saihestu zuen bitarte, onik aterra zen; baina udazkenean, erret armada hornituago aurkeztu zen, laure-

soutenues par une partie de la noblesse, comme les Bela par exemple. Le 12 octobre, Matalas commit l'erreur d'accepter le combat et fut écrasé ; comme toutes les armées insurgées du XVII^{ème} siècle, celle de Soule se défit aussi vite qu'elle s'était assemblée. Le 12 au soir, le malheureux Matalas n'était plus qu'un fugitif ; le 13, il fut capturé dans la maison forte de Gentein et transféré à Mauléon le 14 octobre.

Conformément aux moeurs brutales de l'époque, on lui fit "*bonne et brève justice*" ; B. d'Arche instruisit son procès en quelques jours. Le Parlement fit un peu traîner les choses en renvoyant la procédure devant l'Official (tribunal ecclésiastique) car Matalas était prêtre. Mais l'arrêt qui le condamnait à la peine capitale parvint à Mauléon le 7 novembre ; Matalas, dégradé, fut décapité et roué le lendemain dans la plaine de Licharre. Comparée à celle qui avait sévi en Normandie en 1641, la répression en Soule fut bénigne ; un des lieutenants du curé fut pendu, trois autres furent condamnés aux galères à perpétuité. Comme à l'ordinaire les juges exercèrent leur sévérité à l'encontre de ceux qui avaient pris le large et ils prononcèrent huit condamnations à mort par contumace. En décembre le roi accorda à tous les insurgés des lettres de pardon ; l'évêque d'Oloron, fidèle à son rôle de modérateur, réclama les cadavres des suppliciés qui furent inhumés à Baraute dans l'église Saint-Jean. Pour que l'histoire de Matalas soit conforme à celle de tous ses homologues, il lui fallait une dimension merveilleuse ; ce fut bientôt chose faite. Destinée à édifier les peuples, la tête du curé avait été exposée sur la porte de Mauléon ; elle y fut dérobée dans la nuit du 31 décembre. La littérature populaire s'empara du personnage et un "canard" fit le récit édifiant d'un Matalas repentant : "La mort de Goinheix dit Matalas curé de Montcayolle".

Si l'impôt avait été, comme dans tous les autres cas connus, le déclencheur de la révolte souletine, on connaît moins bien ses implications sociales. Les insurgés, qui commirent peu de violences, s'en prirent en particulier aux protestants et détruisirent même le temple de Montory. Il n'est pas impossible que le souvenir des années noires du XVI^{ème} siècle ait eu sa part dans cette détestation ; mais il faut aussi se rappeler que bon nombre de familles molestées, nobles et protestantes, avaient acquis des offices, c'est-à-dire des charges publiques très onéreuses pour les contribuables. En fait, la paysannerie souletine se trouvait confrontée, comme ailleurs en France, à une fiscalité envahissante et à ses auxiliaires. Lorsque cette coalition, au demeurant instable, menaçait la Coutume, le temps de la révolte était venu. Celle-ci avait donc bien aussi un contenu politique ; mais ce n'était pas celui

hun zaldizko bazituen, eta gainera bertako nobleziaren laguntza zuen, hala nola Belatarrak. Urriaren 12an makur bat burutu zuen Matalasek, gudua onartzea, eta hortxe galdu zen; XVII. mendeko herritar armada guztiak bezalaxe, Zuberoakoa ere xahutua izan zen, gudariak elkarren ondora bildu bezain laster. Urriaren 12 arratsaldean, Matalas iheslari bat baizik ez zen; 13an atxilotua izan zen Gotañeko gotorlekuan eta 14an Maulera eraman zuten.

Garaiko ohitura bortitzen arabera, “bonne et briève justice”, justizia gogorrena egin zitzaion; B. d’Archek eraman zuen prozesua eta egun bakar batzuetan eraman ere. Parlamentua ibili zen arazoa zertxobait atzeratu nahian, eta horretarako, Matalas apaiza zenez, Ofizialari (elizako tribunalari) igorri zion. Baina heriotz zigorra jasan zuen gure atxilotuak. Azaroaren 7an hil zuten. Matalas, degradaturik, burua moztu zioten eta biharamunean Lextarreko ordokian gurpilpean pasatua izan zen. Normandian 1641ean jasan behar izan zuten errepresioarekin konparatuz bigunagoa izan zen Zuberoakoa; apaizaren ordarietariko bat urkatua izan zen, eta beste hiru galeretara igorriak betirako. Garai hartan normala zenez, epaileek zorrotz jokatu zuten damugabeko iheslariekin eta zortzi heriotz zigor gehiago aldarrikatu zituzten. Abenduan erregeak barkamendu-gutunak igorri zizkien altxatu guztiei; Olorueko apezpikuak, moderatzaile egitekoari loturik, hildakoen gorpuak eskatu zituen eta Bahutako San Joan elizan ehortziak izan ziren. Matalasen kondaira beste batzuen kondairaren antzeko izan zedin eite miresgarri baten faltan gertatu zen; laster gauzatu zen hau. Herritarren zentzapenerako apaizaren burua Maule sarrerako atean erakustera emana izan zen; abenduaren 31ko gauean ebatsia izan zen. Herri-literaturak pertsonaia honen babesa bilatu zuen eta izen-gabe batek kondaira hunkigarria idatzi zuen Matalas damutuari buruz: “La mort de Goinheix dit Matalas curé de Montcayolle” (Matalas deitu Mithikileko apaiz zen Goienetxeren heriotza) izenburupean.

Zerga izan bazen ere, ezagunak zaizkigun beste kasu askotan bezalaxe, zuberotar matxinada lehertarazi zuen arazoa, ez ditugu hain ongi ezagutzen gizartean honek izan zuen eraginaren ondorioak. Lehenik, altxatuek ez zuten biolentzia handirik burutu, protestanteen aurka sartu ziren hein batean Muntoriko eliza hondatzeraino. Esan daiteke XVI. mendeko urte ilunak oraino gogoan zeudela eta hauekiko higuina bizirik zegoela; baina beharrezkoa da baita gogora dezagun laborari altxatuentzat gorrotagarri ziren familia asko eta asko, handikiak eta protestanteak zirela, kargu ofizial eta publikoak zituztenak, eta jakina, zergapekoentzat karga zirenak. Izatez, zuberotar laborariak, Frantziako beste leku batzuetan bezalaxe, zerga-biltzaile itogarriei eta hauen laguntzaileei aurpegi eman beharrean gertatu ziren. Egitura hau geroz

du nationalisme alors inconcevable. Désespérés, écrasés par le fisc, les Souletins s'étaient révoltés pour "leurs libertés, privilèges et franchises" ; une révolution pour conserver et non pour changer.

L'épisode de Matalas n'eut d'ailleurs pas de suite ; mieux administrée par les intendants, la Soule fut paisible de 1661 à la Révolution. Les seuls troubles qu'elle connut furent le fait de brigandages attribués aux bohémiens. Dès 1695 les Règlements recommandaient aux communautés ; "de courir sus aux bohémiens". Entre 1740 et 1743 le pays se plaignit des exactions de la bande de Valentin Domingo, forte de huit malandrins. Les Etats s'élevèrent contre la complicité d'une partie de la population et du laxisme des autorités locales : "Le nombre des crimes journellement commis et multipliés dans le pays de Soule porte un notable préjudice à la sûreté publique ; l'impunité enhardit les délinquants...". Les Basques de Soule se livraient déjà à leur sport favori : la contrebande, celle du tabac et surtout celle du bétail. Les vols de bestiaux finirent par être si nombreux et accompagnés de violences que l'opinion s'émut ; à la veille de la Révolution les communautés promettaient des primes pour la capture "des Egyptiens, ou Bohèmes, voleurs et malfaiteurs". Au demeurant la province était très paisible et les troubles qui survinrent en Labourd en 1773 et 1782 contre la ferme générale et celle du tabac n'y eurent aucun écho.

Source:

BIDART, Pierre, et al, *Le Pays de Soule*, Editions Izpegi, 1994.

estuago bilakatu zenean, Lege Zaharra zalantzan jarri zen eta hor izan zuen matxinadak bere sorrera. Egia da, honek bazuen edukin politikorik; baina hau ez zen edukin abertzalea, pentsa ezinekoa zelako garai hartan. Zuberotarrak, inolako anparorik gabe, zergapean zapaldurik, ez zuten “beren askatasunaren, pribilegioen eta eskubideen alde” altxatzea beste biderik izan; ez zen aldaketarako iraultza izan, zeukatena gordetzeko iraultza baizik.

Bestalde, ez zuen jarraipenik izan Matalasen gertakariak; administrazio-ordezkariek ere hobekiago jokatu zuten, Zuberoa bakean bizi izan zen 1661. urtetik Iraultzara arte. Ezaguna zaigun arazoetariko bat zera izan zen, lapurretak, baina hau buhameei egotzi ohi zien. Hona zer gomendatzen zitzairen herriei 1695eko Arautegi hartan: “buhameei gogor egin beharra”. Izan ere 1740-1743 urteak bitarte herrialde guztia Balentin Domingoren zortzikote gaiztagin-taldeak egin lapurreten beldurrez ibili zen. Estatuak altxa behar izan zuten herritar zenbaiten laguntzaren eta lekuko agintari batzuen laxotasunaren kontra: “Egunero ikusten ari garen hainbat bidegabekeria ikusirik eta geroz kaltetuago gertatzen ari dela Zuberoako segurtasun publikoa; eta zigorgabeziak hantustez betetzen dituela gaizkileak...”. Zuberotar zuberotarrak, bestalde, beren kiroltik kutunenari atxikirik ibili ziren: kontrabandoa, tabakoaren kontrabandoa, eta ganaduena batik bat. Ganadu-lapurretak ez ziren hain ugariak baina bortitzak izan ohi ziren zenbait alditan eta hunkigarriak herriarentzat; oraino Iraultzaren bezperan herriek sari onak eskaintzen zituzten “ijitoak edo buhameak, lapurrak eta gaizkileak” harrapatzeagatik. Gainerakoan herrialde honek aski baketsu jarraitu zuen eta Lapurdin orohar baserriaren kontra eta tabakoari buruz 1773-1782 urteak bitarte sortu ziren arazoek ere oihartzun eskasa izan zuten.

Iturburua:

BIDART, Pierre, et al, *Zuberoako historia*, Gaiak, Donostia, 1995.